

ARAUTU GABEKO LAGUNTZA ETA LAGUNTZA KOMUNITARIOA EUROAPAN

Segidan, Emakundek antolatutako «Lana eta familiako erantzukizunak bateagarri» gaiari buruzko ihardunaldietan (1994ko maiatzak 19-20), SIISek aurkeztu zuen «Arautugabeko laguntza eta laguntza komunitarioa Europan» hitzaldiaren textua argitaratzen dugu.

Hitzaldi honi izenburua jartzerakoan, arazo kontzeptualak aurkitu ditugu, bai guk bai antolatzaileek. Zailtasun hori dela eta, denbora nahikoa eman behar izan diogu definizioak eta aidez aurreko gogoetak azaltzeari, denok jakin dezagun benetan zertaz ari garen hitzegiten.

Horrela bada, hitzaldi honen egitura ez da deskripzio batena izango, nazioarteko panoramikek izaten ohi dituztenen antzerakoa. Esan genezake, gogoeta moduko bat dela, hori bai, europako gizarte politika eta praktiketan oinarritua. Hasteko, beraz, hainbat definizio emango ditugu, erreferentzia-gune izan daitezten. Ondoren, laguntza komunitarioak eta arautu gabeko laguntzak azken urte hauetan hartu duten garrantzia aztertuko dugu, hauen aldeko eta kontrako eritzi/argumentuak agertuz. Eta bukatzeko, arlo honetan oraindik konpondu gabe dauden arazoei buruzko hainbat aipamen egingo ditugu.

1. ZERTAZ ARI GARA?

«Laguntza komunitarioa» esaten zaio lagundutako pertsonen bizimoduan funtsezko aldaketarik sortzen ez duenari. Pertsona ezinduen arazoei beren ohizko in-

gurunean irtenbidea ematea du helburu, instituzioetan sartu beharra ebitatuz.

Arautu gabeko laguntzaren helburua ere berbera da, baina kasu honetan familiak edo gertuko inguruak eskaintzen du laguntza. Laguntza mota bien arteko desberdintasuna beraz, hauxe da: laguntza komunitarioa gizarte-zerbitzuek ematen dute, arautu gabeko laguntza, berriz, ahaidetasun, laguntasun edo erantzukizun harremanetan edo betebeharrak moralean oinarritzen da.

Nolanahi ere, definizio hauek laguntza komunitarioaren eta arautu gabeko laguntzaren esanahi nagusia argitzen duten arren, ez dute laguntza hauen benetako edukina zehazki azaltzea lortzen, bereziki bigarren kasuan.

Gizarte zerbitzu eta gizarte politikari buruzko literaturaren analisiak argi erakusten du laguntza mota hauek azken urte hauetan lortu duten protagonismoa/nagusitasuna.

Nazioarte mailan, erakargarritasun horren arrazoiak aztertzen dituzte hainbat ikerketa interesgarriak. Kontua, alabaina, ez da erreza, batez ere ikuspegi objektibo baten bila bagaude eta interes, eskubide eta datu guztiak kontutan hartu nahi ditugunean. Nondik hasi, bada? Gure eritziz, egiaztapen hauetatik:

- Batetik, arautu gabeko sareak edo sare naturalak -batez ere familiak-pertsona ezinduei ematen zaien laguntzaren pisu handiena hartzen du (gutxi gora behera %90a).

— Bestetik, testuinguru honetan familiaz mintzatzen gareanean, emakumeetaz ari gara batez ere.

Hau honela izanik, arautu gabeko sarea ahul lezakeen edozein faktore, arrisku edo mehatxua izan daiteke sistema osoarentzat. Eta izan badira horrelako faktoreak: demografikoak, sozialak eta ekonomikoak.

Gehien aipatu ohi den faktorea bilakera demografikoa izan da. Eta ezkorrak ez izan arren, populazio zaharkitua garela onartu behar dugu. Dударik gabe, biziesperantza handitzeak, funtzionalki ezinduak diren pertsona oso zaharren kolektiboaren ugalketa handia dakar. Horretaz gain, bestelako aldaketa batzuek ere arriskuan jar dezakete orain arte familiak —eta batez ere emakumeek— laguntzaren alorrean izan duen rola: adibidez, familien tamaina txikitzea, guraso bakarreko familien kopurua handitzea, bigarren ezkontzak ugaltzea, edo emakumea produkzio sistemari gero eta gehiago integratzea.

Horrez gain, kontutan hartu behar dira halaber, emakumeek aldaketa sozial eta kulturalaren eraginez gai honen inguruan hartuko dituzten erabakiak. Agian, orain arte onartu duten erantzunkizunari utziko diote, edo agian gizonezkoen konpromezua eskatuko dute etxe-alorreko funtzioetan, eta beraz zaintzaile funtzioetan.

Baina laguntza komunitarioaren protagonismoa ez da bakarrik sare naturalaren ahultze arriskuarekin batera gertatzen. Esandako protagonismoa krisi ekonomikoaren testuinguruan gertatzen da eta, honelako giroan bai literatura berezituak bai komunikabideek behin eta berriro azpimarratzen dute zerbitzu sozialekoen gastu publikoaren igoera. Hainbat ikuspegitatik krisiak gastua ez handitzea edo gutxitzea justifikatu dezake, eta beraz, erantzunkizuna arlo publikotik arlo pribatura pasatzea. Prozesu honetan, laguntza komunitarioak bere jatorrizko esanahia galduko luke eta jadanik ez litzateke izango laguntza komunitatearen barruan, komunitateak emandakoa baizik. Eboluzio hau, lojikoak denez, ez da ikertzaile guztien gustokoa eta horietako askotxo beldur dira laguntza komunitarioa ez ote den izango erabaki politiko eta ekonomiko baten justifikazio filosofiko hutsa.

Beste ikuspuntu batetik, soziologia feministari loturikoa, laguntza komunitarioaren azpian eta elkartasun sozial horren azpian, gizarte matxista eta patriarkalera bueltatzeko arriskua eta emakumea bere zaintzaile rolaekin identifikatzeko arriskua soma daitezke.

Zaintzaile rol hori ez da emakumezkoaren nortasunaren berezko ezaugarri bat, gizartearen barruan duen egoeraren adierazpena baizik. Horren jatorria sexu bien arteko funtzio-banaketa tradizionalan dago, familia-eginbeharren sistema hierarkizatu eta itxian, non emakumezkoek etxe alorrari dagokion guztiaren erantzunkizuna hartzen duten, zaintzaile funtzioa barne. Horregatik, emakume askok, gauza naturala bailitzan onartzen dute zaintzaile papera, denek ezagutu etainork zalantzan jartzen ez duen akordioa bailitzan.

Onarpen orokor honen ondorioz, rol horren kontra doazen emakumezkoek, errudun konplexua garatzen dute maiz/sarritan. Mota honetako sentimenduak saihesteko nahiago dute gizarteak beraien-gandik espero duen funtzioa betetzea eta, etxe nahiz lanbideko erantzunkizunetaz gain, zaintzaile funtzioa ere betetzen dute.

Azken finean esan daiteke erantzunkizun-sentimendu bati eutsiz onartzen duela emakumezkoak bere zaintzaile papera, eta erantzunkizun hori harreman afektiboan eta belaunaldien arteko elkartasun-sentimenduan oinarritu arren, eginbeharra da beti ere, nolabait esateko «halaberharrezko altruismoa/eskuzabaltasuna».

Onartze prozesu honetan funtsezko elementua da zaintzailearen rola idealizazioa. Izatez, «zaindu» hitzak berak oso konotazio positiboak ditu. Zaila da beraz, hitz hori errealtateari lotzea. Zaila da onartzea senide bat zaintzea oso lan gogorra dela, esfortzu psikologiko eta fisiko oso handiak eskatzen dituela, eta sarritan sakrifizio asko eskatzen dituela.

Orain arte esandakoak laguntza komunitarioaren eta arautu gabeko laguntzaren aurrean zuhurtziaz jokatzera bultzatzen gaitu. Baina hala ere, laguntza mota horren aldeko beste bi elementu hartu behar dira kontutan:

Alde batetik, pertsona ezinduek erakutsi dute nahiago dutela beren betiko inguruan bizi.

Bestetik, familia askok benetan zaindu nahi dituzte beren senide ezinduak, horretara bultzatzen dituzten maitasun edo/eta erantzunkizun arrazoietatik gain. Dugarik gabe—eta oso ulergarria da—funtzio hori neurri batean betetzeko prest daude, hau da, hartutako erantzunkizunak beren pertsona-, familia-, gizarte- eta lanbizimodua erabat baldintzatzen ez badu eta pixkanaka kartzela edo heriotz sozialaren sinonimo bilakatzen ez bada.

2. ORDUAN, NONDIK JO?

Gure eritziz, eta aipatu elementu guztiak kontutan hartuz, —batzutan kontraesankorrak badira ere—, eskubide eta interes desberdinak barne hartuko dituen laguntza komunitario eredu bat garatu behar da. Ez da kontu erreza, ez. Lehenik eta behin orain arte argitu gabe geratu diren funtzezko arazo batzuk konpondu behar dira.

Estatuak sare informala gorde nahi badu, orain arte dedikazio eta borondate ukalezina erakutsi duena, beharrezko baliabideak jarri behar ditu, familien sakrifizioa jasanezina izan ez dadin eta familia hauek orain arte bete duten eta bete nahi duten zaintzaile funtzioa baldintza duinetan kumplitzen segi dezaten. Horretarako, estatuak argi adierazi behar du zein den sektore publikoaren erantzunkizuna pertsona ezinduen atentzioan. Eta honek praktikan zera esan nahi du: gizarte zerbitzuak unibertsalizatu, zaintzailearen rola definitu zerbitzu sare formalarekiko harremanen arabera, eta zerbitzuen eskeintza eskariari egokitu.

Zerbitzuak unibertsalizatu

Zerbitzuak unibertsalizatzeko lehenengo arrazoia, egun ere zerbitzu sozialen erabilerari lotzen zaion estigma baztertea da. Administrazioak, hein batean sistemaren jatorri benefiko-asistentzialak baldintzaturiko egoera hau indartu egin du, zerbitzuen erabilera neurritz gainerik handituko den beldurrez. Hala ere onartu egin beharko da, lehenago ala beranduago, zigorraren eta «informazio ezaren bideak, ez duela epe luze benetako arazoa konpontzen. Gizarte zerbitzuek behar dituenaren esku egon behar dute eta horien beharra duenak zerbitzu hauek erabil ditzakeela jakin behar du. Ezinbestekoa da erabiltzailearen eskubideak eta eskubide horietaz baliatzeko baldintzak definitzea, ez bakarrik balizko abusuak saihesteko baizik eta bereziki konparaziozko agrarioak baztertzeko eta profesionalei iharduera-erizpide zehatzak emateko.

Unibertsalizazioa ezinbestekoa da halaber familiei —gaur egun pertsona ezinduen atentzioaren %90a jasaten dutenak— bermatu nahi baldin bazaie laguntza zerbitzuak, bai eta espezializatuenak ere, erabili ahal izango dituztela behardituztenean. Azken finean, pertsona ezinduek ondo zainduta egoteko duten eskubidea onartzea da gakoa, halabeharrez gertuko laguntzaren menpe gelditu beharra izan gabe.

Arduradun publikoek ez dute arazo hau argi planteatu nahi familiek bere erantzunkizunari utziko dioten beldurrez, zeren honek oso ondorio ekonomiko larriak izateaz gain arriskuan jarriko bailuke elkartasun katea historikoa.

Egon litekeen hausdura arrisku hau leuntzeko xedez, hainbat legeriek erabaki dute zaintzaileek beren zerbitzuen truke dirusaria jasotzeko duten eskubidea onartzea. Aurrerago ikusiko dugunez, ekimen hauek badituzte arazoak eta zuhurtziaz jokatzea behar da. Jarraian neurri hauen edukina azalduko dugu laburki:

Suedian, estatu mailan, hiritar guztiei onartzen zaie 30 eguneko laneten ordaindua senide zaharrak zaintzeko egoera larrietan. Maila lokalean, bi aukera ditu zaintzaileak: laguntza ekonomikoa jaso edo etxeko laguntza programaren barruan kontratatua izan. Hala ere onura hauetaz baliatzeko aukera ez da erizpide argiek araututako eskubide bat, eta udalerriz udalerrira aldatzen da, dauden errekurtsioen arabera.

Norwegian zaintzaile informalak, zuzenki nahiz zeharka, laguntzeko neurri mota gehiago dago. Zuzeneko laguntzen artean aipatu daitezke:

- zaintzailea etxeko laguntza programaren barruan kontratatzea; kontratazioa udalaren erabakiaren menpe dago.
- pentsio sistema berezi bat, zeinaren arabera zaindutako senidearen heriotza edo instituzionalizazioaren ondorioz errekurtsio ekonomikorik gabe gelditu diren eta epe luzez zaintzaile funtzioak burutu dituzten pertsonen eskubideabaitute gutxieneko jubilazio pentsioaren pareko dirusaria jasotzeko.
- laguntza sistema bat, zeinaren arabera zaintzaileari, lanpostua denboraldi batez uzteak bere etorkizuneko jubilazio

pentsioaren kalkuluan izan lezaken eragina konpentsatzen zaion.

Aurrekoetaz gain bada prestazio ekonomiko bat, beste pertsona baten laguntza behar duten pertsona ezinduentzat. Neurri hau, zeharka, onuragarria izan daiteke zaintzailearentzat baina legeak ez du zuzeneko hartzailea behartzen, prestazioaren zenbatekoa zaintzailea ordaintzeko erabil dezan.

Alemanian, urtean lau asteko ezendentzia bermatzen zaie pertsona oso ezinduen zaintzaile informalei. Honez gain,

zaintzaileak hileroko beste laguntza bat ere har dezake, dirutan edo etxeko laguntzaordutan. Jubilazio pentsioei dagokienean, pertsona ezindu baten zaintzari eskainitako urteak, lan egindako urte kopuru osoari eranstea aukera eztabaidatzen ari da, bai eta lan arautegietan aldaketak sartzekoa, lan ordutegiak malgutzeko.

Erresuma Batuan aldizkako dirulaguntza sistema bat dago eta horretaz baliatu daitezke pertsona oso ezinduen zaintzari asteko 35 ordu edo gehiago ematen dioten lan egiteko adina duten helduak. Dirulaguntza hau zaintzaileak funtzio hau betetzeagatik galtzen duen soldataren ordezkua da, eta beraz bateraezina da egun osoko lanarekin.

Irlandan pertsona ezindua baten zaintzan lanaldi bat adina denbora ematen duen zaintzaileak laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea du. Laguntza hau hartzeko, diru-sarrerek maila jakin batetikbeherakoak izan behar dute eta gainera zaindutako pertsonak hainbat baldintza bete behar ditu (balioezintasun pentsio kontributiboaren onuraduna izan, edo 66 urte baino gehiago izanik pentsio ezkontributiboa jaso).

Frantzian, elkarren artean oso antzekoak diren bi dirulaguntza aurrikusten

ditu legeak, bata pertsona gutxituentzat eta bestea zahar ezinduentzat, eguneroko aktibitateak burutzeko beste pertsona baten laguntza behar baldin badute. Zaintzaile informalak ezin du laguntza honen zuzeneko onuraduna izan.

Beste alde batetik, «emplois de proximité» deitutakoen figura sortu du Frantziako legeriak eta horren barruan biltzen dira pertsona baten etxebizitzan egiten ohi diren lan guztiak (etxeko lanak, umeen eta pertsona ezinduen zaintzeta, etab.). Figura honen bitartez kontratatzen dutenek hainbat abantaila ekonomiko izango dituzte: sortutako gastuen %50aren zerga-arinketa eta kotizazio patronalen salbuespena (azken hau kontratatzaileak 70 urte baino gehiago baldin baditu).

Gure esparruan, (Prestazio ez kontributiboaren legea garatzen duen) 1991 ko martxoaren 15eko Errege Dekretuak, 2. artikuluan, balioezintasun pentsio ez kontributiboetarako osagarri bat aurrikusten du. Osagarri hau eguneroko aktibitateak burutzeko beste pertsona baten laguntza behar dutenek eska dezakete, eta horren zentzuzkoa pentsioaren %50ekoa izango da.

SARE INFORMALEKO ZAINZAILAINTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Suedia	Norvegia	Alemania	Erresuma batua	Irlanda	Frantzia	Espainia
- 30 egunelako lan-eten ordaindua - estatu mailan - Laguntza ekonomikoa maila lokalean - Etxeko laguntza programaren barruko kontratazioa - maila lokalean	-Etxeko laguntza programaren barruko kontratazioa - Pentsio sistema - Kotizazioen konpensazioa. jubilazio pentsioaren kalkuluari begira - Erabiltzailearentzako dirulaguntza, beste pertsona baten beharragatik	-Urtean lau astetako lan-ezedentzia - Hileroko laguntza, dirutan edo etxeko laguntza ordutan. - Zaintzaile funtzioaren aritutako urteen konpensazioa, pentsioei dagokienean. - Lan ordutegi malguak	-Aldizkako dirulaguntza, beste pertsona baten zaintzari asteko 35 ordu edo gehiago ematen dioten lan egiteko adina duten helduentzat.	-Zaintza funtzioan lanaldi bat adina denbora ematen duten zaintzaileentzako laguntza ekonomikoa.	- Erabiltzaileentzako dirulaguntza, zaintzaileak kontratatzeko. -Zerga-arinketaketa kotizazio patronalen ordainketatik salbuespenak «emplois de proximité» deitutakoen kontratazioarako.	- Eguneroko aktibitateak burutzeko beste pertsona baten laguntza behar izateagatik osagarria, balioezintasun pentsio ez kontributiboetarako.

Zalantzarik gabe ekimen hauek oso interesgarriak dira, baina aldi berean oso problematikoak ere bai. Alde batetik zaintzaile/zaindua harremanean elementu ekonomikoa sartzeak, orain arte emakumeek burutu duten zaintza funtzioa instituzionalizatzeko arriskua dakar -hala irakur daiteke gutxienik literatura feministan. Beste alde batetik, ekimen hauek arautu gabeko laguntza-aren oinarrian dagoen elkartasunaren «dohaintasuna» eta «naturaltasuna» zalantzan jarri arazten digute. Bai eta pentsarazi ere elkarrekiko harreman

hauetan zaintzailea saritzeko beharra somatzen dela, eta beraz emandako zerbitzua ordaindugabea izan arren, ez dela dohainekoa.

Zaintzaile rolaen definizioa

Lehenago esan dugunez, zerbitzuak unibertsalizatzeaz gain, zerbitzu formalen sarearekiko harremanetan zaintzaileak duen rola definitu behar da.

Horrela da, bai. Zaintzaileak oso jarrera berezia du, batetik zaindu egiten du, eta

bestetik laguntza behar du, eta honen ondorioz figura anbigua da berea. Anbigutasun honek—argitzen ez bada— arazo larriak ekar ditzake gizarte zerbitzuetako profesionalen eta zaintzailearen arteko harremanetan.

Harreman hauek, eskema modura, hiru eredu nagusitan bana daitezke. Lehendabizikoan zaintzailea baliabidetzat hartzen da, bigarrenengan lankidetzat, eta hirugarrenengan erabiltzailatzat.

Lehen kasuan, instituzioak pertsona ezinduaren ongizateaz arduratzen dira nagusiki. Ongizate hau zaintzailea bermatzen duen bitartean, ez dute parte hartzen; sare naturalaren ahultzearen ondorioz pertsona ezinduaren egoera larritzen denean bakarrik hartzen dute parte.

Lankidetzaren ereduaren arabera, arautu gabeko sareak eta sare formalak batera zaintzen dute pertsona ezindua, honen ongizatea izanik bien azken xedea. Erabiltzailearen ongizateari eragiten dion neurrian interesatzen zaizkio sare formalari zaintzailearen ongizatea, satisfakzio-maila, etagogo-egoera. Zaintzailearen ongizatea tarteko helburua da eta erakundeek horretan lagun dezakete beharrezko babesa emanez.

Hirugarren ereduaren arabera, zaintzailea gizarte-zerbitzuetako erabiltzailatzat hartzen da, eta berarekin dituzten harremanetan erakundeek beraren eta pertsona ezinduaren eskubideen arteko interes-gatazka hartzen dute kontutan, biak lagunduz eta babestuz.

Jakin badakigu, eraiketa teoriko hauek ez zaizkiela benetako egoera konplexuei egokitzen baina, harreman-eredu hauek aukera ematen digute arautu gabeko laguntza eta laguntza komunitarioaren arazo garrantzitsu eta eztabaidatuak aztertzeko:

Sare formalaren parte hartze berankorrak arautu gabeko sarean eragiten duen ahulezia.

Zaintzaile eta profesionalen artean sortzen diren gatazkak, pertsona ezindua batera zaintzen dituztenean.

Arlo publikoa esparru pribatuan sartzeko arriskua, eguneroko arazo arruntak konpontzerakoan, eta familiak senide ezinduen zainketan erantzunkizuna galtzeko arriskua.

Batetik pertsona ezinduaren eta beste-

tik zaintzailearen eskubide eta ongizatearen arteko interes-gatazka.

Sare formalak parte hartze-erizpide objektiborik ez izateak sor litzazkeen konparaziozko agrabioak.

Arazo hauen planteamendu eta konponbidea loturik dago, noski, zaintzaileari sare formalarekiko harremanetan emango zaion definizioarekin.

Gure eritziz sare naturala gorde nahi bada, gizarte-zerbitzuek hasieratik hartu behar dute parte eta ez bakarrik kasurik larrietan, familia ingurunea hondatu ez dadin, pertsona ezinduaren instituzionalizazioa behartuz. Hala izanik ere, ez da komenigarria zaintzaileari emango zaion tratamendua erabiltzaileari dagokionarekin parekatzea, zeren eta horretan arlo publikoaren eta pribatuaren arteko muga ezabatzearen arriskua egon baitaiteke, eta arlo publikoa etxeetako intimitatean sartuko litzateke eguneroko arazo arruntak konpontzerakoan.

Zerbitzuen eskeintza eskariari egokitu

Erantzunkizun publikoaz, zerbitzuen unibertsalizazioaz eta sare naturalaren babesaz ari garenean, halaber, erabiltzaile eta zaintzaileentzako zerbitzu-sarea egokitzeaz hitz egin behar dugu, bai kuantitatearen aldetik bai kalitatearenetik beharrezko desberdinei erantzuneko dien sareaz.

Horrela ulertu da, azken urte hauetan Europako herri desberdinetan egin diren politika sozialaren erreformatan. Erreforma hauen ardatza zerbitzuak emateko sistema zurrin eta estandarizatuak aldatzea izan da, hain zuzen ere, horren ordez pertsonen behar anitzei erantzuteko gauza den sistema malgua ezarri. Sistema honek dauden baliabide guztiak erabiltzen ditu, bai publikoak bai pribatuak, eta lehenetsia ematen dio lagundutako pertsona bere ingurune sozialean segitzeari.

Ikuspegi honetatik, egoitzetako atentzioa ez da desagertzen baina kasurik larrietara murrizten da, hau da, autonomia-galera handiak daudenetara. Modalitate desberdinetan antolatzen da eta herrialde garatuetan, gutxienez, 65 urtetik goragoko populazioaren %5a hartzen du barne. Mediterraneo aldeko herrialdeek bakarrik Espainia, Grezia, Italia eta Portugal— dituzte horren oso azpiko tasak (%2aren ingurukoak).

**EUROPAKO BATASUNEN
ESTATUKIDEETAN DAGOEN EGOITZA-
AZPIEGITURAREN ESKAINTZA. 1991.**

	65 urtetik gorako 100 laguneko postu kopurua	65 urtetik gorako 100 laguneko egoitza postuak
Alemania	5,4	2,3
Belgika	7,8	2,1 ¹
Danimarka	13,2(11,3)	5,3
Espainia	2,0	0,2
Frantzia	5,1	2,4 ¹
Grezia	0,5	—
Irlanda	5,0	—
Italia	2,3	—
Luxemburgo	7,8(6,8)	1,4
Holanda	12,3(9,7)	2,6
Portugal	2,0	—
Erresuma Batua	10,0(5,0)	—

OHARRA: Parentesi arteko kopuruak, zaharrentzako babespeko etxebizitza eta bestelako zenbait egoitza berezi kanpo uzten dituzten datuei dagozkie. ¹ Ospitaleetako egonaldi luzerako oheak (Frantzia) eta geriatrikoetakoak (Belgika) bame.

Informazio-etorbidea: Older people in Europe: Social and Economic Policies. The 1993 Report of the European Observatory. Commission of the European Communities.

Euskal Autonomi Elkartearen egoera hobexegoa da, eskaintza-tasa estatukoa baino puntu 1 altuagoa delako, hala ere asko falta da %5era heltzeko.

Horrela agertzen du orain gutxi kaleratutako Adinekoen Egoitza buruzko Arartekoaren txostenak. Estadistiken arabera egun dauden 8.890 egoitza-plazek %3,34ko eskaintza hartzen dute, 65 urtetik goragoko populazioari dagokionean. Zehaztu behar da, alabaina, Araban tasa %5,08koa dela, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko

tasak direla—%3 ingurukoak biak—Euskal Autonomi Elkartearen maila jeisten dutenak. Egoitza-zerbitzuetako itxarrote-zerrenda luzeek adierazten duten betegabeko eskariari erantzuteko, eta 65 urtetik goragoko populazioaren %5a barne hartu ahal izateko, 5.000 plaza berri sortu beharko lirateke berehala, eta etorkizunari begira zaharren populazioaren bilakaerari egokitu zaion hazkuntza erritmo bizia ezarri beharko litzateke.

Horrelako eskaintzak aukera emango luke gaur kasu larrien zaintzari eman behar zaizkion baliabide komunitarioak desblokeatzeko, horientzako irtenbiderik egokiena instituzionalizazioa baita. Baliabide komunitario hauek orduan, berez dagokien funtzioa beteko lukete, hau da, autonomia-maila nahikoa duten, eta beraz beren etxeetan egon daitezkeen pertsona ezinduen beharrak bete, horretarako bitarteko zurruneziak erabili gabe. Argi ikusten denez, pertsona ezindu eta zaintzaile gehienek eragiten die honek. Bi talde hauei laguntza eta babesa emateko, derrigorrezkoa da zerbitzu komunitario eta etxeko sare zabal eta anitza izatea.

Euskal Autonomi Elkartearen, zerbitzu komunitarioak —eguneko zentroak batez ere— oso urriak dira eta oso populazio txikia hartzen dute barne.

Ettxeko zerbitzuek—etxeko laguntza gehien bat— ordea, 6.500 erabiltzaile dituzte gure Elkartearen, hau da, 65 urtetik goragoko populazioaren %2,4a.

**ETXEAN EMANDAKO SOROSPOEN-ZERBITZUA
Eskaintza, maila eta intentsitatea**

	E.A.E.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1. 65 urtetik gorako zahar sorostu kopurua	6.496	1.097	3.354	2.045
2. 65 urtetik gorako biztanletoa	266.109	30.828	146.896	87.385
3. Sorostutako biztanletoa / biztanletoaren 100 zeharreko	2,44	3,55	2,28	2,34
4. Zaharrak sorosteko urteko zerbitzu-orduak	2.438.983	459.036	1.297.591	682.356
5. Asteko sorospen-orduak	46.777	8.803	24.887	13.087
6. Intentsitatea (asteko zerbitzu-orduak erabiltzaileko)	7,20	8,02	7,42	6,39
7. Maila (asteko zerbitzuorduak 65 urtetik gorako 1.000 biztanleko)	175,8	285,5	169,4	149,8

Informazio-etorbidea: Foru aldundiek egina.

Agertutako estadistikek adierazten digute 2 milioi zaintza-ordu eskaintzen zaiela 8.000 familiei, hala ere ez dira nahikoak populazio ezinduen beharrak betetzeko, zeren Arartekoaren txostenak esaten digunez, 6.600 zahar baino gehiagok egon behar baitute ohe edo besaulkitan, eta 8.000 baino gehiagok ezin dute bakarrik garbitu ez eta jantzi.

Nahiz eta zerbitzua sortu zenetik esfortzu handiak egin diren, agertutako datuak Europako batzbestekoak baino askoz baxuagoak dira: hau da, %18aren ingurukoak iparraldeko herrietan (Suedia, Finlandia eta Danimarka), eta %6aren ingurukoak gugandik gertuagoko herrietan (Frantzia, Belgika). Zerbitzuaren intentsitateari dagozkion datuak ostera, (intentsitatea da

zerbitzuak erabiltzaileari eskeintzen dizkion asteko zaintza-ordu kopurua) Europako beste herri batzuetakoak baino altuagoak dira. Seguru asko, euskal zerbitzuak pertsona oso ezinduek zaintzen dituelako gehien bat, eta beste herrialde batzuetan osera anitzagoak dira zerbitzuak eta erabiltzaileak.

EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDE TAN ETXEAN EMANDAKO SOSPENAREN ADIERAZLEAK

	Eskaintza	Intentsitatea	Maila
Suedia	18,4	4,75	1.016
Danimarka	20,5	—	—
Erresuma Batua	6,1	3,2	320
Frantzia	6,1	2	128
Belgika	6	2,2	133
Finlandia	18,4	1,4	271
Austria	8,8	1,1	104

Informazio-etorbidea: SIIS. Etxeko laguntza Europan. Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte Segurantzako Saila. Gizarte Ongizateko Agiriak, 32.zkia.

Aurrerantzean, eskaintza handiagorantz eta intentsitate baxuagorantz jo beharko luke zerbitzuak, eta honek ez du esan nahi emandako zerbitzu-orduen batzuetekoa gutxitu behar denik, baizik eta laguntza arinagoa eskatzen duten erabiltzaile berriak gehitu behar direla.

Baina etxeko laguntza zerbitzuak dituen arazoak ez dagozkie soilik eskaintza eta intentsitateari. Gure inguru soziokulturaleko beste herrietako bilakaeraren arabera, kontutan hartu behar dira, horrez gain, sistemaren funtzionamendua hobe lezaketean hainbat antolamendu eta arauketa alor.

Lehenengo eta behin, komenigarria da beharren ebaluaketarako sistema bakkarraren ezarketa aztertzea, zeren udalek arlo honetan duten konpetentziaren ondorioz, desberdintasun nabarmenak antzeman baitaitezke erabiltzaileak onartzeko erizpideetan. Arazo hau herrialde askotan agertzen da. Kanadan eta Holandan adibidez, irtenbide erradikala aukeratu dute: bat egitea. Esparru honetan udaltradizio handia duten beste herri batzuetan (Suedia, Norvegia edo Erresuma Batua) konplexuagoa da aukeraturako irtenbidea. Bateratzea bi bidetatik lortzen da. Alde batetik Administrazio zentralak oinarriko erizpide orokorrak ezartzen ditu onespentzaintzak definitzeko, hau da, erabiltzailearen eskubidea mugatzeko. Beste alde batetik elkarren eragin han-

dia dute arautegi lokalek, eta beraz, nolabaiteko uniformetasuna lortzen dute.

Bigarrenez, etxeko laguntza deitutako zerbitzuaren barruan biltzen diren lan desberdinak definitu beharra dago: etxeko lanak, zainketa pertsonala eta erizaintza lanak. Definizio hau oso baliagarria izan daiteke erabiltzailearen beharrak mugatzeko, baina horrek ez du esan nahi sailkapena perfil profesionalen arabera egin behar denik. Gaur egun, Europako hainbat herritan, Suedian eta Norvegian esaterako, parte hartzen duten langile-kategoria desberdinen iharduerak estuki koordinatzeko joera dago, atentzio globaleko programa individualizatuen barruan, eta lanen banaketa ez da kategoriasailkapen zurrunaren arabera egiten. Hainbat proposamen urrunago heltzen dira eta, bolondres eta zaindutako pertsonaren senideak biltzen dituzte espezializatorik gabeko lan errezetarako.

Komenigarria litzateke, halaber, Autonomi Elkarte osorako definitzea zerbitzuaren finantzaketan erabiltzaileak izan behar duen parte hartze ekonomikorako erizpideak. Honi dagokionez, Europan (Norvegia, Suedia, Holanda, Erresuma Batua) indarrean dauden ereduak kuota aldagariaren sistema aukeratu dute. Aportazioaren zenbatekoa, onuradunaren sarreraren arabera erabakitzen da. Erabiltzaileen aportazio hauek zerbitzuaren kostua %10ean ordaintzen dute.

Honetaz aparte, beharrak mugatzekoan eta interbentzio plana zehazterakoan erabiltzaileek eta zainzaileek parte hartzea aztertu beharko litzateke. Agian haxe da Erresuma Batuko edo Suediako plangintza individualizatuen arrakastaren gakoa, aldatu egiten baititu erabiltzaile eta zainzailearen eta profesionalen arteko harremanaren kalitatea.

Azkenik, adierazi behar dugu etxeko laguntza zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko ez dela nahikoa arazo hauek konpontzea. Garatu egin behar da, baita ere, zerbitzu alternatibo edo/eta osagarri multzo handi bat, adibidez, etxetara banaturako janariak, garraio zerbitzu espezializatuak, alarma sistemak, etxebizitzak egokitzeko ekipamendu teknikoak, etab.

AZKEN GOGOETAK

Orain arte esandakoarekin, arautu gabeko laguntza eta laguntza komunitarioari dagozkien arazo nagusiak aipatu ditugula

HAMAIRU URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA, ETXEKO LANETAKO PARTAIDETZARI JARRAIKI, SEXUAREN ARABERA

	Beti		Inoiz ere ez	
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.
Etixerako janari eta produktuen erosketa	10,6	64,3	50,2	10,5
Otordu-prestakuntza Baxera-garbiketa	7,4	65,8	61,2	12,9
Arropa-prestakuntza Etxearen garbiketa	8,1 4,5	67,8	60,6	9,3
Haurrak zaintzea	7,1 5,4	65,4	74,6	14,2
		65,9	62,4	10,1
		36,1	78,7	55,1

Fuente: EUSTAT. Bizi-kondizioen inkesta 1989.

Antzeko emaitzak ematen ditu halaber, Familiari buruzko Batzorde Europearreko Eurobarometro inkestak, seme-alaben zainketaz ari denean. Esanguratsuak dira, izan, datuok: elkarrizketaturiko 4 pertsonetatik 3k (gizonezkoen %77ak eta emakumezkoen %75ak) uste dute amek etxean geratu behar dutela seme-alaba txikiak zaintzeko.

Datu hauek argi adierazten dute desoreka nabarmena dagoela, aukeraberdintasuna eta seme-alabekiko eskubide eta betebeharrak berdintasuna aldarrikatzen duen «arrazoi kolektiboaren», eta eskema tradizionalak behin eta berriro errepikatzen dituen «inkonziente kolektiboa» deitutakoaren artean.

Centro de Documentacion y Estudios SIIS. Traducción Bego Montorio.

uste dugu. Aztertzeke dago oraindik, jakina, familia barruan eta ondorioz pertsona ezinduen zaintzan emakumezkoek oraino betetzen duten funtsezko rola, sexuen arteko berdintasunaren eta aukera-berdinketaren alde omen dagoen gizarte honetan. Baina egoera hau ez da aldatuko berrikuntza politiko eta legezko hutsen eraginez baizik eta aldaketa sozial sakon baten ondorioz, eta gizonezkoek praktikan agertuko duten joera izango da, seguruen, honen giltzarria. Egoera orekatu behar da, berdinketa etxe esparrura zabalduz, eta di-

tugun datuei begira, helburu hori oso urrun dago oraindik.

Nahikoa da Eustatek egindako Bizi-kondizioen inkestak, gizonezkoen eta emakumezkoen etxeko lanetako partaidetzari buruzko kapituluaren, eskeintzen dituen emaitzak ikustea konturatzeko emakumea dela, oraindik ere, lan horietako arduradun nagusia: emakumezkoen %65a arduratzen da beti erosketak egiteaz, janariak prestatzeaz, harrikoa egiteaz, jantziak garbitu eta lisatzeaz eta etxea txukuntzeaz.